

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar
Jose María Herce Isasmendi
Igor Ezpeleta
Jose Angel Petralanda Gil
Iñaki Madinabeitia Elorza
Aitor Urrutia Oyanguren
Jose Luis Cantero Morcillo
Juan Luis Merino Sanabria

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamabiko urriaren 30ean, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ez ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Martinez andrea.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 30 de octubre de 2012, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste la Sra. Martínez.

1.- KREDITU ALDAKETARI BURUZKO ESPEDIENTEEN GAINEKO INFORMAZIOA.

12., 13., 14., eta 15. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko erabakien berri eman du Alkateak.

Ondoren transkribatzen da espediente bakoitza osatzen duten DIRU-SARREREN ETA GASTU PARTIDEN KONTZEPTUEN AURREKONTUAREN EGOERA-ORRIA.

- 12. ESPEDIENTEA

Gastu partidak: transferitu nahi diren kredituak (bajak)

PARTIDA				
0201.330.010.00.01	Interesak			
0505.222.121.00.05	Informatikako k			
0201.227.611.00.09	GFA zerqabilke			
0501.227.442.10.13	Msnkomunitate:			
GUZTIRA				

Gastu partidak: gehitu nahi diren kredituak (altak)

PARTIDA			GEHIKUNTZA	
0102.227.434.00.15	Kontratua: Parke-l			
0102.227.442.20.01	Garbitasuna: Bide			
0304.227.413.20.11	Kont: Desinfektazi			
0404.227.456.50.21	Aisialdiko zerbitz			
0102.219.443.00.01	Mante nimendua: k			
GUZTIRA				

- 13. ESPEDIENTEA

Diru-sarrerren egoera

Kreditu gaikuntza finantzatzen duten diru-sarrerak honako hauek dira:

Aurrekontuetako kontzeptua	Izena	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspena	Aldea
2.0201.720.000.00.03	EDFG. Konpostajea egiteko gune pilotoentzako diru laguntzak.	0,-	3.799,19 €	3.799,19.€
GUZTIRA		0,-	3.799,19.€	3.799,19€

Gastuen egoera

Proposatutako kreditu gaikuntzek aurrekontuko ondorengo partidetan dute eragina:

Aurrekontuko partida	Izena	Hasierako aurreikuspena inicial	Behin betiko aurreikuspena	Aldea
0501.601.442.10.03.	Konpostajea egiteko gune pilotoak.	2.980,00.€	6.779,19 €	3.799,19 €
GUZTIRA		2.980,00.€	6.779,19 €	3.799,19.€

- 14. ESPEDIENTEA

Diru-sarreraren egoera

Kreditu gaikuntza finantzatzen duten diru-sarrerak honako hauek dira:

Aurrekontuetako kontzeptua	Izena	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspena	Aldea
0201.720.000.00.04	EDFG.-Diru laguntza Gipuzko@IKT:Udalak. Herrian sare telematiko baten ekipamendua	0,-	4.956,00.€	4.956,00 €
GUZTIRA		0,-	4.956,00.€	4.956,00.€

Gastuen egoera

Proposatutako kreditu gaikuntzek aurrekontuko ondorengo partidetan dute eragina:

Aurrekontuko partida	Izena	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspena	Aldea
0505.601.521.00.04.	Sare telematikoaren ekipatzea.	2.304,00.€	7.260,00 €	4.956,00 €
GUZTIRA		2.304,00.€	7.260,00.€	4.956,00.€

- 15. ESPEDIENTEA

Diru-sarreraren egoera

Kreditu gaikuntza finantzatzen duten diru-sarrerak honako hauek dira:

Aurrekontuetako kontzeptua	Izena	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspena	Aldea
0201.720.000.00.05	EDFG-Diru laguntza Gipuzko@IKT:UDALAK. Eskoriatzako kultur Web ataria.l	0,-	3.500,00	3.500,00.€
GUZTIRA		0,-	3.500,00.€	3.500,00.€

Gastuen egoera

Proposatutako kreditu gaikuntzek aurrekontuko ondorengo partidetan dute eragina:

Aurrekontuko partida	Izena	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspena	Aldea
0505.643.521.00.01	Eskoriatzako kultur Web ataria.	2.550,00 €	6.050,00 €	3.500,00 €
GUZTIRA		2.550,00 €	6.050,00€	3.500,00.€

2.- 2013RAKO ORDENANTZA FISKALAK ALDATZEKO PROPOSAMENA.

UDALEKOAK

Bertaratutako zinegotzi guztiek dute Hazienda batzorde informatzaileak 2013. urterako ordenantza fiskalei buruz egindako diktamenaren kopia. Alkateak proposamen horren laburpena egin du.

Ondoren, OHZri buruz berak emandako boto partikularren berri eman du, eta zehazki, % 100eko errekarua ezartzeari buruz etxebizitza bat jabearen ohiko egoitza ez denean – hirugarrenen kasuan errentamenduz edo lagapen bidez–. Bere boto partikularra justifikatzeko esan du bere ustez alokairuzko etxebizitza sustatu behar dela, eta ez jabetzakoa; eta errekarua bat aplikatzeak egun dauden etxebizitza huts ugarietako batzuk alokairuan jartzea ekarriko duela.

Batzordeko diktamena bozkatu baino lehen boto partikularra bozkatu beharko zela argitu ondoren, hitz egiteko txanda ireki da.

* Iñaki Madinabeitiak azaldu du zein izan zen errekarua hori ezartzearen aurka bozkatu zuten batzordekideen planteamendua. Horrela, honako hau esan du: horrelako errekarua batekin aurrezteko ahalegina zigortzen da, eta batez ere, inguru honetan, etxebizitza bat izatea ondare garrantzitsutzat hartu den inguru honetan; eta etxebizitza bat erosteko aurreztu dutenek ahalegin bat egin dute, ekonomia bera ere dinamizatu dute. Etxebizitzak hutsik egotea, auskalo zein arrazoiengatik izan daitekeen! etorkizunari begira egindako aurreikuspena izan daiteke, familian beharren bat egon daitekeela aurreikusten delako. Eta horrekin aurrezpena zigortzen da, eta ez gastua. Eta, gainera, jakinda Eskoriatza ez dela arlo horretan espekulazio leku bat. Orduan, ez dut egoki ikusten horrelako zigor bat

ezartzea; horri buruzko azterlanik ez badut ezagutzen ere, uste dut Eskoriatzako etxe huts gehienak ez direla espekulaziorako joera horrengatik, baizik eta familia horrek edo pertsona horrek horretan inbertitzeko diru bat zuelako.

* Jose Luis Canterok adierazi du Alkatearen boto partikularraren alde bozkatuko duela. Honako hau esan du: adierazi gura dugu egungo egoeran, gure herriko, zein Euskadiko edo estatuko, etxebizitzaren arazo larria arintzeko balio dezakeen edozein neurri, ongi etorria izan behar dela. Hemen ez zaio inori bere etxebizitza kentzen ari, egiten den gauza bakarra da neurriak hartzea etxebizitzak alokairuan jartzeko sustatzeko. Eta gauden egoeran, etxe gabetzeekin, husteekin, positiboa de zentzu horretan hartutako edozein neurri. Eta, horretaz gain, jabetzak funtzio soziala izan behar du, hau da, jabetza eskubidea dagoela, baina, konstituzioak ezartzen du eskubide horrek funtzio soziala izan behar duela, eta funtzio sozial hori da botere publikoek eskatu behar dutena, kasu honetan, Udalak. Ezin dugu ezer egin gabe jarraitu egoera honetan, eta etxeak hutsik daudela ikusten. Ez zaio inori ezer kendu behar, etxebizitzak jabearena izaten jarraituko du. Errekargu batez ari gara, OHZren errekkarguaz. Uste dugu neurri horrek, arazoa konpontzen ez badu ere, higiezinaren arloan egoera arintzen lagundu dezakeela.

* Iñaki Madinabeitiak eskatu dio Jose Luis Canterori ez erabiltzeko hemen esan ez diren hitzak; aurpegiatu dio hemen inork ez duela esan etxebizitzaren jabetza kenduko denik. Adierazi du berak esan duela zigortu egiten dela; ez, kentzen denik.

* Cantero jaunak erantzun dio ez jartzeko bere ahotan berak esan ez dituen hitzak, esan duena esan duenean ez duela ahotan hartu inoren esanak, bakarrik esan duela jabetza eskubide bat dagoela, eta errekkargu horrek ez duela eraginik eskubide horretan.

* Iregui andrea errekkarguaren aurka azaldu da, eta horreterako dituen arrazoiak azaldu ditu. Uste du pertsona batzuk bere bizitzan ahalegin bat egin dutela dirua aurrezteko, eta diru hori gauza baterako edo besterako erabili dutela; eta batzuk bidaietan edo beste gauza batzuetan gastatu duten bezala, beste batzuk bigarren etxebizitza bat erosi dutela diru horrekin, eta ez zaiola bidezkoa iruditzen azken horiei, erabaki hori hartu zutelako, sakrifizioz irabazitako horri errekkargua ezartzea.

* Alkate jaunak esan du zehaztu gura duela ez dela aurrezkoa zigortzeko neurria, errekkargurik jasotzerik ez bada gura aukera dagoela bigarren etxebizitza alokairuan jartzeko; uste du errekkargua ez dela oztopo bigarren etxebizitzan inbertitu gura duenarentzako, etxe bizitza hutsak alokairuan jartzea sustatzea gura dela. Esan du gaur egun gazteek arazo handiak dituztela etxebizitza bat jabetzan eskuratzeko, baina, bera alokairuzko etxebizitza sustatzearen aldekoa dela.

* Merino jauna errekkarguaren alde azaldu da, baina, legez jarri daitekeen handiena jartzea proposatzen du, hau da, % 150a.

* Alkatea ez da azaldu errekkargu handiena orain jartzearen aldeko, uste du aurrez ikusi behar dela zein den neurri horren benetako eragina, eta behin ikusi eta baloratu ondoren, aukera hori aztertu.

* Urrutia jaunak esan du guztiekin ados dagoela esan duten gauza batzuetan, eta ez dagoela ados guztiekin ere, beste zenbait gauzetan. Galdetu du ze zentzu duen eztabaida honek, errekkargua aurreikusten duena Foru Araua bada, derrigorrez betebeharrekoa baita.

* Idazkariak argitu du Foru Arauak ez duela derrigortzen errekkargu hori ezartzera, bertan jasotzen dela nahi duen udalak hori onartu ahal izateko aukera, hau da, udalaren eskuduntza da errekkargu hori ezartzea edo ez.

Aurreko hori argituta, Urrutia jauna errekkarguaren alde agertu da, eta esan du koherentzi hutsez egiten duela, aurreko agintaldian, orain indarrean dagoen ordenantzan jasotzen den errekkargua onartu zenean, alde bozkatu zutelako.

Alkatearen boto partikularren gaineko eztabaida amaituta, bertan egiten duen proposamena bototara jarri da, argituz errenergua % 100ekoa izango dela.

Bozketaren eginda, Iregui andreak eta Madinabeitia jaunak aurka bozkatuta eta bertaratuak gainerako udalbatzarkideek alde, Hazienda batzordeko diktamenari emandako bere boto partikularrean Alkateak proposatuak % 100eko errenergua onartu da.

Boto partikularren gaia aztertuta eta erabakita, Alkateak, laburpen bat egin ondoren, eztabaidara ekarri eta bototara jarri du 2013ko ordenantza fiskalen gaineko Hazienda batzordearen diktamena.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, honako hauek hitz egin dute:

* Merino jauna zenbait tasa ez igotzearen alde agertu da. Esaten du jakina dela udal bat jasotzen dituen diru sarrerekin kudeatu behar dela, baina, BEZaren igoerarekin eta udal zergen KPlaren igoerarekin (%3,1), langileria dela guztia ordaindu behar duena. Horregatik, esan du, %3,1 baino igoera orokor txikiagoa proposatu gura dutela, adibidez, % 2,7, Donostiako Udalak proposatu duen moduan, eta zergaren bat, OHZ bezala, dagoenetan uztea, inolako igoerarik gabe. Bestela, aurka bozkatuko duela esan du, eta alegazioaren bat aurkeztuko duela bide horretatik.

- Urrutia jauna: hemen gakoak KPIa dela ikusita, neure buruari egiten diodan lehenengo galdera da, nongo KPI? (Estatukoa, autonomia erkidegokoa, probintziakoa), izan ere, Udal honetan eztabaidarako gaia izan da. Bigarrena, KPIa automatikoki igotzea gauza modu errazean egitea dela iruditzen zait, ez konplikatzeko, eta tasa guztiei buruz egin beharreko azterketa ekonomikoa ez egitea. Klase gehiago edo lan gehiago eskatuko nioke ekonomian hain aditua den alkate bati. Oso bitxia da errenergaren kontu honekin ikusi dena: gobernu taldea ez datorrela bat. Eta lehen esan dudana bezala, ordenantzen proposamenari buruz luze hitz egin nahiko nuke. Babes ofizialeko etxebizitzetako hobaria kentzeak harritu egiten gaitu. Lehen, errenergaren kontuarekin, esan da laguntza txiki bat dela etxebizitzaren gainean gazteek duten arazoa konpontzen laguntzeko; bada, uste dut babes ofizialeko etxebizitzetako hobaria kentzeak ez duela horretan laguntzen. Egoera ekonomikoa txarra jasaten ari diren familia eta pertsonetako eman diezaikegun laguntza txikia kentzea da. Uste dugu hobari hori kenduta ez dugula sustatzen etxebizitza sozialen alokairua eta ezta, orokorrean, etxebizitzena ere. Eta gainera, oso bitxia da aurreko agintaldian, guztion babesarekin, taula batzuk egin zirela progresibitate bermatzeko. Uste dut, gaur egun taula horietako egokiak diren begiratu aktan eta diktamenaren ikusten da alkatearen boto partikularrekin konforme ez zegoena, orain, bere alde dagoela hobaria kentzeko erabaki honetan; errenergaren aurka bozkatzen dute ahalegina eta sakrifizioa zigortzea dela usten dutelako, eta babes ofizialeko etxebizitza erosten duenak ez ote du, ba, ahalegin bat edo sakrifizio bat egiten? Hau ze eredu klase da, daukanari "libre" eta ez daukanari "egurra". Horregatik bakarrik, ordenantza fiskal hauen aurka bozkatzea merezi du. Baina, badago gehiago ere. Hasieran esan dut ikutu batzuk egitea eta KPIa aplikatzea gauzak modu errazean egitea dela, eta ekonomia jardueren gaineko zergen KPlaren % 3,1 aplikatzea da esan dudanaren adibide garbiena. Gaudenetan gaude, progresibitate bat egon beharko litzateke, eta muga bezala % 3,1a jarri, eta ez karga bera jarri ondo doanari eta gaizki doanari. Hori ez da berdintasuna, eta izatekotan, berdintasun injustua litzateke, eta ez da, noski, hain beharrezko dugun jarduera ekonomikoki laguntzea. Antzeko zerbait gertatzen da hiri lurren balioaren igoerarekin: portzentaje taula mantentzea eta tarifak % 3,1 igotzea proposatzen da, zertan oinarrituz? Ibilgailuen gaineko zergari dagokionez, zailtasunak ezartzen dira familia ugarietarako. Ados gaude familia guztiak ez direla berdinak esaterakoan, eta ez legoke gaizki egongo hori ere taula bat egitea progresibitate ezartzeko. Ados gaude ibilgailu elektrikoetako hobaria ezartzearekin, baina, kuriositatez, zenbat kilometro ditu milia batek? Norbaitek txiste merkea egingo du eta 100.000 direla esango du, baina, proposamena milietan ikusi dugu.

Ez dakigu nondik ekarri duzuen hori, Estatu Batuetatik, Venezuelatik edo auskalo nondik! Aurrerago esaten duzue jarduera komunitate batean egiten denean, hobaria, bakarrik, mugikortasun murriztua duen pertsonaren bizikidetzaren unitateari proportzionalki dagokion obra zatiari egingo zaiola. Eta hori, guri, ez zaigu guztiz zuzena iruditzen, obra komunitateak egiten duelako, zer gertatzen da obra hori establezimendu publiko batean egiten baldin bada? Hobe litzateke udaletxetik bertatik hasiko bagina eta harrera egokitu gurrpil-aulkian datozenei bertara etortzea errazteko. Edo behartuko, aholkatuko, sustatuko... balira esatablezimendu publikoak, banketxeak eta aurrezki kutxak beraien instalazioak bertara gurrpil-aulkian joan behar direnen beharretara egokitzera. Zabor tasaren % 3,1eko igoera proposatzea, Mankomunitateak horrela agintzen duela esanez, soberan dago. Mankomunitateko juntan % 6,4ko igoera proposatu zen, eta horrek esan nahi du gezurretan ibilita % 3ko igoera ezarri gero, % 3,4ko zuloa egongo dela. Horrek motibazio politiko garbia du, Atez Atekoa ezartzeak duen benetako kostua ezkutatzeko. Eta horrek argi eta garbi erakusten du kontu horretan, ekonomia aldetik begiratuta, ez dagoela inolako segurtasunik, eta zenbait kontu oso ezkutuan egiten direla. Batzordeko akta irakurrita ura igotzeko emandako azalpena ikus daiteke. Azalpen horretan ikus daiteke nondik atera behar den zaborra batzeko zerbitzua ordaintzeko faltako litzatekeen % 3,4a ordaintzeko dirua. Hobe litzateke udalak ur hornidura sare osoa aztertuko balu eta hor inbertituko balu, obra handitan inbertitu beharrean. Dorleta eta Santa Ana urbanizatzeko lanetan egiaztatu ahal izanenez, ur asko galtzen da sarearen egoerarengatik, eta hori ez lukete ordaindu behar herritarrek gaur egungo ekoera ekonomikoan, izan ere, sare dagoen bezala badago, Udalaren erruz da, ez dituelako bere erantzukizunak betetzen. Eta esaten ari naizen guztiaren froga da kiroldegiarekin eta kirol instalazioekin gertatzen ari dena. Denok dakigu kiroldegiak ekonomia aldetik zer suposatzen duen, eta horri aurre ez egiteak, bakarrik KPla igotzea planteatzeak argi erakusten du ez dela azterketa ekonomiko serio egin, edota, egin baldin bada, ez direla ondorioak onartu gura. Eta ez dakit zer den hobe. "Ogia eta zirkua" arazoei aurre egin gabe. Azkenik, Telesko. Tasa 3,1 igotzea proposatzen da, Teleskorekin jarraitzea planteatuko balitz bezala. Teleskok duen kostu handiena langileena da, zergatik ordaindu behar dute eskoriatzarrek % 3,1 gehiago? Zeri aurre egiteko? Azken urteetan soldatak igo ez izana edo jaitsi izanak, BEZaren igoerak erosahalmenaren jaitzierarekin batera eta langabezia maila asko igoz, tasa igotzea, eta gainera, horrelako arduragabekeriak, beste koxka bat herritarren erosahalmenaren kaltetan, barne kontsumoa suspertzearen bidean beste traba bat da, herritarren poltsikoek jasan behar duten beste kolpe bat. Eta igoera horiek dakartzaten gauza bakarra baliabide gehiago dira, sarrera handiagoak zaborra jasotzeko zerbitzuak izan behar duen igoera ezkutatzeko, hori baita udal bezala egin gura den gauza bakarra Atez Atekoarentzat. Esandako guztia esan ondoren, igarriko zenuten, ba, aurka bozkatuko dudala.

- Alkateak erantzun dio ikusten den arren batzordeko diktamena irakurri duela, bere analisisia ez dela zuzena zenbait kontutan, eta honako hauek esan ditu:
 - KPla automatikoki igotzen dela azterketa serio egin gabe, ba, arrazoia duela. Proposamen intuitibo samarra egiten dela eskura ditugun datuetan oinarrituz. Iaz, esan dio, udal honen zerga presioari buruzko azterketa konparatibo serio bat egin zen inguruko udalekin konparatuta, eta konpromiso sendoa hartu du datorren urterako tasei buruzko azterketa ekonomikoa egiteko; aurten ezin izan dena egin.
 - Errekarguari buruz gobernu taldeko kideen botoa berdina ez izateari dagokionez, egia dela dio, pertsonak ere desberdinak direlako. Uste du ez dela lehen aldia bakoitzak bere iritzia arabera bozkatzen duena, eta uste du errespetatu beharrekoa dela, eta gainera, horrela izan behar dela.
 - Babes ofizialeko etxebizitzetako hobaria kentzeari dagokionez, argitu du hoberi hori lehen bost urteetarako dela. Jakinarazi du gaur egun Eskoriatzan ez dagoela hoberi hori eskuratu dezakeen etxebizitzarik, eta gerora egin daitezkeen sustapenei buruz, Hazienda batzordekideak, bertaratu zirenak,

etxebizitza sozialak alokairuan sustatzearen alde agertu zirela, eta ez babes ofizialeko etxebizitzaren alde. Esan dio batzordean izan ziren hiru zinegotziek uste zutela babeste ofizialeko etxebizitzak loteria bat zirela batzarentzat, baina, beste batzarentzat, berriz, eskura ezinak; eta horregatik, hobe dela alokairu soziala sustatzea eta laguntzea. Horregatik, aplikatzen ez den hobaria izanik, eta dirudienez, etorkizunean ere aplikatuko ez denez, kentzea erabaki zen.

- Plusbalioen zergan portzentajeak mantentzen direla eta tarifak igotzen direlari buruz, aitortzen du egia dela eta horren arrazoia dela batzordean erabaki zela gehiago kargatu beharko zaiola espekulatzailari, eta espekulazio horren froga bat dela (kasu gutxi batzuk kenduta) erosi eta denbora gutxira zerbait saltzea.
- Esan du egia dela jarduera ekonomikoaren gaineko zergari KPlaren %3,1 ezartzen zaiola, baina, egia dela ere zergen artean zerga horretan izaten dela iruzur handiena, eta iruzur hori konpentsatzeko modu bat zerga igotzea dela.
- Ibilgailuen gaineko zergan familia ugarietako beste urte batzuetako progresibitate ikusten ez delari buruz, esan du ez dela egia, hobarian orain arteko taula aurreikusten delako, OHZeren berbera.
- Ibilgailu elektrikoari buruzko hobariari dagokionez, adierazi du hori horrela jasota dagoela Foru Arauan.
- Oztopo arkitektonikoak kentzeko komunitate batek sustatutako obrei buruz, esan dio hobaria orain arte indarrean egon dena dela, baina, idazkera hobetu dela hobaria zein subjektu pasibok jaso dezakeen argitzeko.
- Jakinarazi du Mankomunitateak Atez Ateko bilketa zerbitzua ezartzearen kostuari buruzko azterketa ekonomiko bat eginda duela, eta azterketa hori ia astero eguneratzen doala, ezarpenaren benetako kostua zehaztasun handiagoaz ezagutzen doan neurrian. Esan du oraindik ez direla ezagutzen zenbait partidaren kostua, lehiaketa fasean daudelako, eta aurreikusten dela gehienez ere % 6,3ko igoera ekarriko dutela. Horrek ez du esan nahi kostuaren igoera hori izango denik, baizik eta hori dela gehienez ere aurreikusita dagoen igoera. Gainera, esan du, orain arte sartzen ez ziren partidak sartu dira, hala nola garbi guneak eta zerbitzu orokorrak. Hala ere, gehitu du, juntan planteatu zen Atez Atekoa ezartzen den udaletan ez egitea inolako igoerarik lehen hiru hilabetetan, eta gero, behin zerbitzua ezarrita eta benetako kostuak ezagututa, horiek herritarrei kobratzea. Eskoriatza moduko beste udalei dagokienez -Eskoriatzan zerbitzuak aurten lehen bezala jarraituko duen arren-, KPla igotzea planteatu zen, eta mankomunitateko udal guztietan berdina izateko, % 3an finkatu zen. Eta zehaztu du hemen ez dela ezer ezkutatu, mankomunitateko txostena existitzen dela, mankomunitateko ingurumen batzorde batean aztertu dela eta udal honetako batzorde batean ere bai; eta informazioa eskatzen baldin bada, emango dela, ez dagoela horretarako inolako arazorik.
- Esan du ur hornidurarengatik proposatzen den igoerak ez duela zerikusirik zabor bilketari buruz egindako aurreikuspenekin, azken horrenak mankomunitateak egindako azterketa serio baten ondorio direla.
- Aitortzen du arrazoia duela ur sarea aztertu beharraz, eta hori izan zela batzordean KPlaren igoera planteatzeko arrazoietako bat. Aurreratu du laster hainbat gauza egin gura direla ur sarean, uste baita kontsurtzioak fakturatu duenaren eta udalak herritarrei kobratzen dienaren arteko aldearen arrazoia ur ihesak direla. Esan du desorekaren arrazoi nagusia iaz % 8,1 ez igo izanagatik eta sarea gaizki dagoelako zenbait lekutan izaten diren ur ihesengatik dela.
- Kiroldegiari dagokionez: zergatik planteatzen den bakarrik KPlaren igoera galerak sortzen baditu? Erantzun dio zerbitzu gehinekin gertatzen dena dela, batzuk aipatzearen, ur zerbitzuak eta zabor bilketak ere galerak sortzen dituztela. Esaten du kiroldegian iaz egin zela igoera handi bat, eta ez zaiola bidezkoa iruditzen KPlaren baino gehiago igotzea.
- Eta, Teleskori dagokionez, zergatik KPla igo gastu nagusia langilearena baldin bada? Esan du tasa kobratzearen arrazoia ez dela langilea, baizik

eta telebista seinalea etxeetara eramateko ematen duen telebanaketa zerbitzua mantentzea. Sare horrek mantenimendu kostu bat du eta konponketak behar izaten ditu. Gainera, esan du, eta nahiz eta Teleskon aldaketa egon, telebanaketa zerbitzua ematen jarraitu behar du, hori baita herritarrei telebista seinalea jasoko dutela bermatzeko modu bakarra.

Hori guztiori esanda, Merino jaunari zuzendu zaio jakinarazteko proposatutako KPIa 2011ko irailetik 2012ko irailera arte EAEn izandakoa dela; aurreko agintaldian erabilitako irizpide bera.

Eztabaidak antzeko bidetik jarraitu du eta bertan honako hauek esan dira:

- Merino jaunak galdetu du ea azterketarik egin den proposamenak 2013ko diru sarreretan izan dezakeen eragina ezagutzeko. Alkateak erantzun dio zenbait aurreikuspen puntual egin direla, baina datu hori ez duela hemen.

- Urrutia jaunak eskatu du Udalak eman diezaiola zabor bilketa zerbitzuaren kostuaren aurreikuspenen gainean mankomunitateak egindako azteketa ekonomikoa. Alkateak azterketa hori emateko konpromisioa hartu du.

- Enplegua sortzen duen enpresentzako jarduera ekonomikoaren gaineko zergan hobariren bat jasotzeko aukera planteatu du Merino jaunak. Ordenantzak jendaurrean jartzeko epean ekarpenen bat egiteko gonbitea egin dio Alkateak; beste edozein ekarpen bezala, ongi etorria izango baita eta hazienda batzordean eztabaidatuko baita.

- Merino jauna kexatu egin da ez delako egon parte hartze prozesurik ordenantza hauek aprobaterakoan. Alkateak erantzun dio parte hartze prozesuek bere denbora behar izaten dutela, eta baita ere bertan parte hartu behar duten pertsonen nolabaiteko prestakuntza izatea, eta kasu honetan ez dela hain erraza, aurrez zerga eta diru bilketan prestakuntza ematea eskatuko lukeelako; orain arte parte hartze prozesuak aurrekontuetara mugatu direla, eta aurten gastua izan dela ardatza; etorkizunean ekimena aurrera baldin badoa, eta sarrerak ere aztertu ahal izan, hori izango litzateke egokiena, baina, urratsez urrats joan behar dela esan du.

Eztabaida amaituta, eta Urrutia jaunaren eta Merino jaunaren aurkako botoekin eta gainontzeko udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- 2013rako ordenantzei buruz Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamena hasiera batean onartzea (eranskin gisa doa).

Bigarrena: Telesko Udal Telebistaren 2013rako ordenantzari buruz Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamena hasiera batean onartzea (eranskin gisa doa).

Hirugarrena.- Hartutako erabakiak jendaurrean jartzea 30 lanegunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharrak egin ditzan.

Laugarrena.- Hartutako erabakiak, Ordenantzen aldaketak eta horien eranskinak behin betikoak izango dira, berriro erabakirik hartu gabe, jendaurrean jarritako epean inolako erreklamaziorik egiten ez bada.

3.- TEJERIARAKO BIDE ZATIARI BURUZKO IKERKETA-ESPEDIENTEA IREKITZEKO ESKAERAREN GAINEKO ERABAKIA.

Alkate jaunak Hazienda batzordearen diktamenaren laburpena egin du eta hitz egiteko txanda ireki du.

Madinabeitia jaunak hitzez hitz irakurri du batzordearen diktamena eta, bertako puntu bakoitza azaldu du labur.

Ondoren, interesdunari berari, Javier Errasti jaunari, publikoaren artean zegoenari, eman zaio hitza.

Errasti jaunak, lehendabizi aurrekariak eta bide tarte horri buruz orain arte eman dituen urratsak azaldu ditu (bidearen titularitatea argitzeko Udalari egindako eskaerak, autopistako obrek bide tarte horretan izan zuten eragina eta aldemeneko jabearekin izandako arazoak orain dela gutxi egindako zubi batengatik).

Alkateak eskatu dio egindako eskaerari lotzeko, hau da, Tejeriarako bide zati hori erabilera publikokoa den ikertzeko espediente bat hasteko egindako eskaerari.

Errasti jaunak hainbat aldiz adierazi du bere ustez bide hori erabilera publikokoa dela, eta hori frogatzeko, eskaerarekin batera hainbat dokumentu aurkeztu ditu, espedientean gordako direnak (bidearekin muga egiten duten lurzatie mugak jasotzen diren eskriturak, epaiak, bertako bizilagun zaharren deklarazioak...), eta horrela jasotzen dela ere Udalak berak eskatuta egindako "inbentario" dokumentu batean, bere garaian onartu ez bazen ere; berak eskatzen duena dela erabilera publikoa aitortzeko espediente bat hastea, eta ohartarazi du prest dagoela iritsi behar den lekuraino iristeko erantzukizunak eskatzeko eta bere ustez bere eskubidea dena defendatzeko.

Urrutia jaunak Errasti jaunaren hitzak eskertu ditu, esan duenez, horri esker ezagutu duelako gai hau eztabaidatzeko arrazoia. Azken urteetan Udalari bidalitako idazkiak ez zituela ezagutzen adierazi du, gogoratu du bazuela autopistako obretatik izandakour isuriren batengatik egondako kexaren baten berri, eta aitortu du bazuela "bideen inbentarioa" izeneko dokumentu baten berri ere, bere garaian egin zena, ez zena onartu, eta, esan duenez, kajoiaren baten ahaztuta jarraitzen duena. Bere txanda amaitzeko, eskaera onartzearen alde azaldu da, bere esanetan, bide hori erabilera publikokoa den edo ez argitzeko ikerketa espediente bat irekitzea eskatzen delako, eta kritikatu du Udal honetan eskaera nork egiten duenaren arabera egiten direla tramiteak eta espedienteak hasten direla, edo ez direla egiten eta ez direla hasten.

Madinabeitia jaunak argitu du inoiz ez dela esan hor biderik ez zegoenik, beste kontu bat dela bide horrek erabilera publikoa ote duen, eta berak ukatu egiten duela bide horren erabilera publikoa izan dela esateko zantzurik dagoenik, eta areago, gaur egun "erabilera publikoa" kontzeptuak duen esanahiarekin. Behin eta berriz esan du berak ez duela horretarako zantzurik ikusten, eta beste gauza oso ezberdin bat dela bide hori erabili izana bertako jabeen nolabaiteko onespenearekin, baina ez gaur egungo erabilera publiko kontzeptuarekin. Eskatzaileak aipatutako –eta berak ez dakien arrazoiengatik onartu ez zen– inbentario-dokumentua egindako irizpide berekin egindako ondasunen inbentarioak onartu dituzten Gipuzkoako hainbat udalek gerora izan dituzten arazoak aipatu ditu. Berriz ere esan du eskatzaileak aurkeztutako dokumentu batean ere ez duela ikusten bide hori erabilera publikokoa izan denaren zantzurik.

Errasti jaunak argitu du aldameneko jabe batekin duen gatazkaren arrazoia bide horretan lizentziarik gabe eraikitako zubi bat dela, bideagatik ez dagoela gatazkarik. Berriz ere esan du bide horrek erabilera publikoa izan duela, eta bere ustez horren lekuko izan daitezkeen inguruko pertsona nagusiak aipatu ditu (bera, bere aita eta Boliña baserrikoak).

Eztabaida amaituta, Alkateak bototara jarri du Hazienda batzordearen diktamena.

Akta honetan jasotzen da, Toki Erakundearen Antolamendu Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 109.1g) artikuluan ezarritakoaren arabera, gai honen eztabaidan parte hartu dutenen irizkiak laburtuta jaso direla, eta gai hau aztertu den osoko bilkuraren zatiaren grabazioaren kopia dagoela espedientean.

Bozketa eginda, berdinketa egon da. Hazienda eta Ondarea batzordearen proposamenaren alde udalbatzarkide hauek bozkatu dute: Alkate jaunak, Iregui andreak eta Herce, Madinabeitia eta Akizu jaunek. Gainerako udalbatzarkideek aurka bozkatu dute.

Toki Erakundeen Antolamendua, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Araudiko 100. artikuluko 2. paragrafoan ezarritakoaren arabera, Alkate-Udalburuaren kalitatezko botoarekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Bernabe Errasti jaunaren jabetzaren aurretik Mazmelarako errepiderraino doan Tejeriarako bide zatiaren erabilera publikoa zehazteko ikerketa-espeditentea ofizioz irekitzeko Javier Errasti jaunak egindako eskaera EZ ONARTZEA.

Bigarrena.- Hazienda batzorde informatzaileak egindako diktamenaren arabera ere, hartutako erabakia hartzeko kontuan izandako arrazoiak honako hauek dira:

ikerketa egiteko eskubidearen helburua dela titularitaterik ez duten ondasunen egoera ikertzea, Udal honetakoak izan daitezkeenaren zantzuak daudelako.

Bide bat erabilera publikokoa izateak ez duela esan nahi titularitate publikokoa denik; eta aurkeztutako datuetan ez dago zantzurik titularitatea Udalarena dela esateko, honako arrazoi hauengatik:

Eskoriatzako udalerrian ez da egon udal titularitateko biderik orain dela urte gutxira arte, zenbait bide horrela izendatu ziren arte, eta horien artean ez dago bide hori.

Gaur egun "erabilera publikotzat" hartzen dugunak ez du zerikusirik antzinan oinezkoak pasatzeko ematen zen baimenarekin.

Paso eta erabilera eskubidea auzotarren arteko akordioak ematen zuen, bidea egiteko eta zaintzeko ardura hartzen zutenetik; areago, pasabide hori argi eta garbi lurzati baten muga barruan zegoenean.

Batzordekideek kontsultatutako auzotar batek ere ez du aztarnarik eman hori titularitate publikoko biderik egon zitekeenik pentsatzeko.

Aurrez esandako guztiarengatik, ondorioztatzen da ez dagoela inolako zantzurik bide hori noizbait titularitate publikokoa izan denik pentsatzeko, eta egoera hori indartzen dute lehenagoko erabilerek eta ohiturek, horietatik guztiz kontrakoa ondorioztatzen baita.

Hirugarrena.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, adieraziz honen aurka berraztertze errekurtsoa jar diezaiokeela Udalbatzar honi hilabeteko epean jakinarazpen hau jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bi hilabeteko epean, Donostiako dagokion maila bereko Auzitegian. Hori guztiori, egin gura dituen bestelako egintza edo errekurtsok aurkeztearen kaltetan gabe.

4.- KIROLDEGIRAKO KIROL AHOLKULARITZA-KUDEAKETA ZERBITZUA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA.

Ezpeleta jaunak, kirol arloko zinegotzi arduradunak, kiroldegirako kirol aholkularitza-kudeaketa zerbitzuak kontratatze arrazoiak justifikatu ditu.

Urrutia jaunak galdetu du ea norik finantzatu behar duen kontratua. Jakinarazi zaio Udala izango dela.

Merino jaunak bere kexa azaldu du zerbitzuak "azpikontratatu" kontratatzen direlako, eta zerbitzu horiek ez direlako ematen udal plantillara teknikari bat gehituta.

Jakinarazten zaio "defizit publikoa zuzentzeko premiazko neurriei" buruzko 20/2011 Lege Errege Dekretuak ez duela uzten langile berririk hartzen udal plantillan.

Informazioa eman zaion arren, Merino jauna kirol teknikari bat kontratatzearen alde eta kirol zerbitzuak "azpikontrata" bidez kontratatzearen aurka azaldu da. Horretan oinarritzen du Kultura batzordearen proposamenaren aurka emango duen botoa.

Eztabaida amaituta eta bozketa eginda, Udalbatzarrak, Merino jaunak aurka bozkatuta, Urrutia jauna abstenituta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Prozedura irekia deitzea kirol aholkularitza eta kudeaketa zerbitzua esleitzeko kontratu hori arautu behar duten baldintza administratiboen agiriaren eta baldintza teknikoen agiriaren arabera.

Bigarrena.- Kontratazio honek sortuko dituen gastuei aurre egiteko behar besteko kreditua esleipen erabakia hartu aurretik kontsignatzeko konpromisoa hartzea.

5. 16. ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA ONARTZEA.

Kredituak aldatzeko 16. espedientea irakurri da. Kreditu aldaketa hori kreditu gehigarri bidez egingo da eta eragina du Udal honetako aurrekontuan.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, aipatutako espedientea dela-eta idazkari-kontuhartzaileak egindako txostenaren berri eman da. Txosten horretan aurrekontu-egonkortasun helburua ez dela betetzen esaten da eta aipatzen da, hori horrela izanik ere, ez dela beharrezkoa ekonomia eta finantza planik onartzerik 2012ko aurrekontuaren kitapena egin arte, abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzen duen erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 1463/2007 Dekretuko 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aldeko txostena eta HAZIENDA OGASUN BATZORDE INFORMATZAILEAK egindako onarpen proposamena ikusirik, proposamena bototara jarri da.

Merino jauna "ur kontsorzioari" dagokion partida igotzearen alde azaldu da, baina, kirol aholkularitza zerbitzuak finantzatzeko aurrekontu kontsignazioaren aurka. Esan du zalantzak dituela, ez duela argi espediente bakarrean partida bat igo ote daitekeen eta beste bat sortu. Bere ustez, azken hori ez da kreditu aldaketa bat.

Idazkariak jakinarazi dio egin daitekeela, eta ohartarazi du espediente bakarra dela, eta eman beharreko botoa gaikuntza guztiak batera bozkatzeko dela.

Merino jaunak berriz ere esan du bera kirol aholkularitza zerbitzurako partida gaitzearen aurka dagoela, eta hori horrela izanik eta, kontsorzioari ordaindu behar baldin bazaio, ez duela ur kontsorzioari ez ordaintzeko bozkatuko.

Eztabaida amaitu ondoren bozketa egin da. Merino jaunak "Ur kontsorzioari" buruzko partida igotzearen alde bozkatu du eta "kirol aholkularitza zerbitzurako" partida berri bat kontsignatzearen aurka. Gainerako zinegotziek aldaketa proposamenaren alde bozkatu dute.

Izandako emaitza ikusirik, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehikuntza bidez kredituak aldatzeko 16. espediente onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulakako laburpenaren arabera:

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
0102.221.441.10.02	Ur patzuergoa	318.878,30	75.000,00	393.878,30
0405.227.452,10.36	Kirol Aholkularitza zerbitzua	0,00	43.342,20	43.342,20
GUZTIRA ...		318.878,30	118.342,20	437.220,50

Sarreraren kontzeptuak edota gastuen partidak	Baliabidearen kontzeptua (11)	Sarrera handiagoak / gastuetako bajak	Baliabidearen partziala
0201.870.000.00.01	Diruzaintzako gerakina: Kreditu gehigarriak finantzatzeko aplikazioa		118.342,20
<u>GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA</u>			118.342,20

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez balego, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

6.- GOITU ERAIKUNTZAK SL-K ABALA ITZULTZEKO EGINDAKO ESKARIA

GOITU ERAIKUNTZAK SL enpresak abala itzultzeko eskatu du. Abal hori 2010eko ekainaren 4an jarri zuen ondorengo obra egiteko kontratutik sortutako betebeharrei aurre egiteko berme bezala: "SANTA ANA KOMENTUKO KAPERA GIZARTE ETA KULTUR ERABILERETARAKO BIRGAITU ETA EGOKITZEKO 1. FASEA"

Eskaera aztertuta eta obra zuzendaritzak egindako txostena ikusita, Udaltzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- ELKARGI S.G.R.-k GOITU ERAIKUNTZAK SL enpresaren alde egindako 17.211,18 €-ko abala kitatzeko baimena ematea. Abala "Santa Ana komentuko kaperak gizarte eta kultur erabilerearako birgaitu eta egokitzeko 1. fasea" egiteko kontratua betetzetik sortutako betebeharrak erantzuteko berme bezala jarri zen.

Bigarrena.- Aipatutako abalaren orijinala interesdunari ematea abalaren kitapena izapidetu dezan.

Hirugarrena.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, adieraziz honen aurka berraztertze errekurtsoa jar diezaiokela Udaltzarrari hilabeteko epean jakinarazpen hau jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bi hilabeteko epean, Donostiako dagokion maila bereko Auzitegian, guzti hori egin gura dituen bestelako egintza edo errekurtsoak aurkeztearen kaltean gabe.

7.- GALDE-ESKEAK.

7.1.- Merino jaunak egindako galderak:

- Antzokiko ekipamendua jartzeko lokala erosteko gestioak nola doazen galdetu du, eta erantzun zaio gaia lehen bezala dagoela.

- Antzokia mantentzeko kostuari buruzko azterketarik egin den galdetu du. Alkateak erantzun dio bigarren faseko obrak hasterakoan eztabaida izan zela jarri beharreko azpiegitura batzuei buruz. Enpresa esleipendunak, beraien hobekuntzen artean, hainbat makineria eskaini zuen. Horrek eztabaida sortu zuen obra zuzendariaren, esleipendunaren eta Udaltzaren artean makineria hori jartzearen egokitasunari buruz eta hori jartzeak transformadore bat jartzea eskatzen zuen edo ez ere eztabaidatu zen, eta baita ere etorkizunean zerk ekarriko duen mantentimendu gastu handiagoa. Esan dio ez dela egon azterketarik, baina, bai, gai horri buruzko eztabaida bat.

- Langabetuentzako antolatutako ikastaroa. Esan du patetikoa iruditzen zaiola dirua kobratzea ikastaro bat egiteko, esan duenez, 20 euro kobratzen zaie eskoriatzarrei eta 30 euro kanpokoei.

Iregui andreak erantzun dio: Gizarte zerbitzuek antolatutako ikastaroa da. Batzorde batean aztertu zen, eta horrela egitea erabaki zen. Eta niri ikastaro interesgarria iruditzen zait, nahiz eta 20 euro kobratu; ikastaroaren kostua 300 euro baino gehiago da, eta badago jenderik ikastaroa egin nahi zuena eta aukerarik ez zuena, eta ikastaroa egiteko 20 euro ordaintzeko prest dagoena. Are gehiago, 20 euroez gain, garraioa ere ordaindu behar dute. Ikastaro interesgarria da, eta beharrezkoa, laster, obra zibilean lan egin ahal izateko prestakuntza hori jasotakoan ematen den txartela eskatuko baita. Ez kobratzea nahiko genuke, baina, ez bagenuke kobratuko, ezin izango genuke antolatu. Horrela, uste izan dugu hobe zela gasturen bat izatea eta 20 euro kobratu, eta ikastaroa egiteko aukera ematea.

7.2.- Urrutia jaunak egindako galderak.

- Antzokiko obren gainean galdetu du ea zergatik ez diren hasi obrak kontratua eginda baldin badago, obra epez kanpo amaitzearena nola gelditzen den eta baldintza agirian aurreikusten ote zen Eskoriatzako langabetu bat kontratatzea.

Alkateak erantzun dio galdera horiek hurrengo hirigintza batzordean erantzungo dituela, eta gaia bertan aztertzeko, gai hori berriaz sartuko dela gai zerrendan.

- Teleskoko txostenaren kopia. Orain dela gutxi Teleskori buruz aurkeztu den txostenaren kopia jasotzea eskatu du. Alkateak txosten hori emateko konpromisoa hartu du.

- Telekoko patronatuaren kitapena: galdetu du ea pentsatu den nola egin patronatuaren kitapena, edo, horrela ez balitz, kitapen hori egin behar ote den.

Alkateak erantzun dio oraindik ez dakitela nola egingo den.

- Aretxabaletako Udalarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena. Hitzarmenean jasotakoari buruzko informazioa eskatu du, eta galdetzen du ea hitzarmena ez ote zen osoko bilkuran aztertu behar.

Bigarren galdera dela-eta, erantzun bat eskatu zaio idazkariari. Horrek erantzun du ez duela ezagutzen horrelako hitzarmenik dagoenik, eta beraz, ezta edukia ere; horrela, informazio hori gabe ezin duela galdetzen zaiona erantzun.

Alkateak konpromisoa hartu du gaia idazkariarekin aztertzeko, eta beharrezkoa balitz, udalbatzarrean eztabaidatzeko eta onartzeko.

- Azken hauteskundeetako emaitzak udal webgunean argitaratu ez direlako kexu da, eta kritikatzun du oraingo honetan argitaratu ez izana, eta aurreko hauteskundeetan, AMAIURREK irabazi zituenean, emaitzak jakin eta denbora gutxira argitaratu izana.

- Kexatu da BILDUren hauteskundeetarako propaganda kartela udaletxeko harrerako bazter batean dagoelako hauteskundearen egunetik.

- Udal artxiboak nola funtzionatu behar duen galdetu du.

Alkateak erantzun dio gai hori hurrengo pertsonal batzordean aztertuko dela, eta bertara joatera eta egoki irizitako ekarpenak egitera gonbidatu du.

Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 21:30ean. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

30-10-2012

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar
Jose María Herce Isasmendi
Igor Ezpeleta
Jose Angel Petralanda Gil
Iñaki Madinabeitia Elorza
Aitor Urrutia Oyanguren
Jose Luis Cantero Morcillo
Juan Luis Merino Sanabria

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamabiko urriaren 30ean, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ez ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Martinez andrea.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 30 de octubre de 2012, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste la Sra. Martínez.

1.- INFORMACIÓN SOBRE EXPEDIENTES DE MODIFICACIÓN DE CREDITOS

El alcalde da cuenta de las resoluciones aprobatorias de los expedientes de modificaciones de créditos nº 12, 13, 14, 15

A continuación se transcribe el ESTADILLO PRESUPUESTARIO DE LOS CONCEPTOS DE INGRESOS Y PARTIDAS DE GASTOS QUE CONFORMAN cada uno de los expedientes.

- EXPEDIENTE Nº 12

Partidas de gasto: créditos que se quieren transferir (bajas)

PARTIDA	DENO			
0201.330.010.00.01	Intereses			
0505.222.121.00.05	Coste informático			
	GFA servicio de			
0201.227.611.00.09	tributos locales			
0501.227.442.10.12	Mancomunidades			
TOTAL				

Partidas de gasto: créditos que se quieren incrementar (altas)

PARTIDA	DEN		INCREMENTO	
0102.227.434.00.15	Contrato: mant. P			
0102.227.442.20.01	Limpieza vías púb			
0304.227.413.20.11	Contrato: desinfect			
0404.227.456.50.21	Contrata de servic			
	Equipamiento de red telemática en el pueblo			
TOTAL				

- EXPEDIENTE Nº 13

Estado de Ingresos

Los ingresos que financian la Habilitación de Créditos son los siguientes:

Concepto presupuest.	Denominación	Previsión inicial	Previsión definitiva	Diferencia
2.0201.720.000.00.03	EDFG.Subvención zonas piloto para compostaje.	0,-	3.799,19 €	3.799,19.€
TOTAL		0,-	3.799,19..€	3.799,19€

Estado de Gastos

Las Habilitaciones de Crédito propuestas afectan a las siguientes partidas presupuestarias:

Partida Presupuest.	Denominación	Previsión inicial	Previsión definitiva	Diferencia
0501.601.442.10.03.	Zonas piloto para compostaje.	2.980,00.€	6.779,19 €	3.799,19 €
TOTAL		2.980,00.€	6.779,19 €	3.799,19.€

- EXPEDIENTE Nº 14

Estado de Ingresos

Los ingresos que financian la Habilitación de Créditos son los siguientes:

Concepto presupuest.	Denominación	Previsión inicial	Previsión definitiva	Diferencia
0201.720.000.00.04	EDFG.-Subvención Gipuzko@IKT:Udalak. Herrian sare telematiko baten ekipamendua	0,-	4.956,00.€	4.956,00 €
TOTAL		0,-	4.956,00.€	4.956,00.€

Estado de Gastos

Las Habilitaciones de Crédito propuestas afectan a las siguientes partidas presupuestarias:

Partida Presupuest.	Denominación	Previsión inicial	Previsión definitiva	Diferencia
0505.601.521.00.04.	Equipamiento red telematica.	2.304,00.€	7.260,00 €	4.956,00 €
TOTAL		2.304,00.€	7.260,00.€	4.956,00.€

- EXPEDIENTE Nº 15

Estado de Ingresos

Los ingresos que financian la Habilitación de Créditos son los siguientes:

Concepto presupuest.	Denominación	Previsión inicial	Previsión definitiva	Diferencia
